



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Extraordinary

Disney+

Pertsonak PDF bihurtzeko gaitasuna duen gaztea, ipurdia 3D inprimagailu gisa erabiltzen duen gizona edota ukitzearekin soilik orgasmoak eragiteko gaitasuna duen nerabea. Zer demontre den hori guztia? Telesail berezi, dibertigarri eta fresko honetako hainbat pertsonaiek dituzten super-botereak.

Hemezortzi urte betetzen dituzten unean, mundu guztiak botere bat bereganatzen duen gizarte batean girotuta dago telesaila; mundu guztiak, 25 urteko Jen protagonistak izan ezik. Pisukideekin batera bizi da eta telesailak horien egunerokoa islatzen du, betiere aipatu dudana premisa bitxi hori bazterrean utzi gabe eta neskak duen “arazo” hori erdigungean jarrita.

“The Boys” telesailak umore oso beltzaren bitartez superheroiaren munduko satira gupidagabe eta zorrotza egiten du; honek, aldiz, umore absurdoagoa erabiliz eta istorio intimistagoa eta txikiagoa landuz, mundu hori erdi-txantxetan jorratzen du. Nerabeei bereziki gustatuko zaizue telesaila.

The Last of Us

HBO Max

Denok ezagutzen duzue jada telesaila, baina despistatuen taldean bazaude edota oraindik ikustera animatu ez bazara honatx gomendioa. Bideojoko ezagunaren moldaketa hau bikaina iruditzen baitzait. Onddo

Aste gutxi pasatu dira 2023. urtea hasi genuenetik, eta agian pentsatuko duzue goizegi dela ondorioak ateratzeko, baina nire garuneko zama apur bat arintzeko egiten dudana ezinbesteko ariketa da honako hau. Sare sozialetako zalaparta, kritikari gehienek oniritzia eta eta, oro har, oihartzun mediatiko guztia bereganatu duen izenburua «The Last of Us» izaten ari da zalantza izpirik gabe, baina badira beste izenburu interesgarri batzuk ere. Adil!

batek gizateria ia osoa suntsitu –gizakien gorputzaren eta garunaren jabe egiten da– eta hogei urte geroago girotutako telesaila da. Mundu ilun eta latz horren erdian Joel eta Ellie daude,

koarentena-eremu batetik atera behar duten protagonistak. Hortik abiatuta, haiekin batera bidaiatuko dugu, motxila barruan drama, umore apur bat, akzioa, beldurra eta, batez ere,



emozio ugari sartzen doazen bitartean.

Pedro Pascal eta Bella Ramsey aktoreen –eta jakina pertsonaien– arteko kimika magikoa iruditzen zait, telesailaren euskarrik sendoena. Gustavo Santaolallaren soinu-banda zoragarria, girotze lan ezin hobea, erritmoaren erabilera milimetrikoa eta atal bakoitzak osotasunarekiko duen garrantzia ere nabarmenak iruditzen zaizkit.

Posible da, iluntasuna nagusi den eta guztiz suntsitua izan den mundu batean, maitasuna, samurtasuna edota ahalik eta duinenen bizitzeko arrazoiak topatzea? Telesailak, oro har, eta bereziki 1x03 atal zoragarriak azaltzen duen moduan, bai.